

## **Euskararen Erakunde Publikoak, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin partaidetzan bideratu duen VII. inkesta soziolinguistikoaren Iparaldeko emaitzak aurkeztu ditu**

- *2021 urte bukaeran egindako VII. Inkesta soziolinguistikoaren Iparaldeko datuak aurkeztu dira gaur.*
- *5 urte guziz egiten den inkesta soziolinguistikoak Euskal Herriko eremu desberdinetan euskararen hizkuntzaren bilakaeraren berri ematen du 4 esparru aztertuz : hizkuntza-gaitasuna, transmisioa, erabilera eta erabileraren sustatzeari begirako jarrerak.*

Baiona, 2023/03/30

VII. inkesta soziolinguistikoa 2021 urtearen bukaeran egin da. Eusko Jaurlaritzak bost urte guziez antolatzen du 1991etik goiti, eta EEPren laguntzarekin 2006tik goiti. Inkestak euskararen lurraldeetako 16 urte eta gehiagoko herritarrak kontuan hartzen ditu, 255.900 pertsona inguru Iparaldean.

Inkesta soziolinguistikoak 4 ikerketa-eremu estaltzen ditu:

- o Herritarren hizkuntza-gaitasuna
- o Hizkuntza-transmisioa
- o Euskararen erabilpena
- o Euskararen sustapenari buruzko jarrera

### **Emaitza nagusiak:**

- 1) Hizkuntza gaitasun orokorra: 2016ko joera konfirmatzen da, Iparaldeko hiztun-kopuru erlatiboa gutituz doa, baina kopuru absolutuaren egonkortzea konfirmatzen da eta emendatze baten hasiera ageri da. Elebidun hartzaileen kopurua emendatzen da.**

### **Euskaldunak: 2016ko joera berretsi egiten da, kopurua ez da gehiago jausten.**

- Euskaldunen kopuruaren beherakada azken 10 urteetan gelditu da. 2021eko inkestaren arabera, Ipar Euskal Herriko 16 urte eta gehiagoko 51.500 biztanle euskaldunak dira, biztanleriaren % 20,1a. 2016an, 51.000 inguru ziren eta haien proportzioa 16 urte eta gehiagokoan % 20,5koa zen.
- Euskaldunen proportzioak segitzen du apaltzen baina beherakada hori "doitzen" ari da: 2021ean % 20,1 ziren, % 20,5 2016ean, % 21,4 2011an, % 22,5 2006ean eta % 24,7 2001ean.

### **Elebidun hartzaileak: progresioa berresten da**

- Gutti gora behera 24.000 elebidun hartzaile dira, hau da, Ipar Euskal Herriko biztanleen % 9,4a. 23.000 inguru ziren 2016an.
- Mila elebidun hartzaile berri irabazi dira beraz 5 urtez eta 2.300 10 urtetan.

## **Euskaldunak eta elebidun hartzaileak bateratuta, kopurua emendatuz doa**

- 75.000 euskaldun eta elebidun hartzaileek osatzen dute Ipar Euskal Herriko 16 urte eta gehiagokoen % 29,5a. 2016 urtean 74.000 ziren eta biztanleriaren %20,5a eta 2011an, 73.000 biztanleriaren %30,5arentzat.
- Euskaldunak eta elebidun hartzaileak bateratuta, mila hiztun aktibo eta pasibo inguru irabazi dira 5 urtetan.

## **Erdaldunak gero eta gehiago dira**

- 2021ean, Ipar Euskal Herrian, 180.000 erdaldun inguru badira, 16 urte edo gehiagokoen biztanleen % 70,5a osatzen dute. Ia 175.000 ziren 2016ean eta biztanleen % 70,1a; 2011an 166.000 eta biztanleen % 69,4a.

## **Lurraldeak**

- Nafarroa Behereko eta Zuberoa dira oraindik ere lurralde euskaldunenak (biztanleriaren % 47,5 2021ean, 2016ko biztanleen %50arekin alderatuta), hau da, 15.500 euskaldun inguru.
- Beti Lapurdin (BAM kanpo) da euskaldun kopururik handiena eta handitzen ari da 2016 urtearekin alderatuta. Euskaldunek lurralde hortako biztanleriaren % 23a osatzen dute.
- BAM lurraldean, 16 urte eta gehiagokoen biztanleriaren % 8,4a euskalduna da, 2016 urteko ber proportzioa.

## **2) Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera: emendatzeak segitzen du adin tarte gazteetan eta areagotu egiten da**

Lehen aldiz, euskaldunen proportzioa emendatuz doa bost adin tarteetatik hirutan: 16-24 adin tartekoak, 25-34 adin tartekoak eta lehen aldiz 2011etik, 35-49 urtekoak.

- Adin talde gazteenak (16-24 urtekoak) gero eta alde handiagoa du 25-34 urtekoekiko: izan ere, euskaldunen proportzioa 4 puntuz handiagoa da eta % 21,5ekoa (% 18,9koa da 25-34 adin tartean). 16-24 urteko adin-taldean ere, indarberritze-prozesua azkarrago egiten da: +2,6 puntu 2016 eta 2021 artean, eta +1,3 puntu 2011 eta 2016 artean. Beste bi adin-taldeetan, 25-34 urte eta 35-49 urtekoetan, euskaldunen proportzioak gora egiten du: +% 1,5 eta +% 0,5, hurrenez hurren.
- Zaharrenek (65 urtetik gorakoak) osatzen dute oraindik euskaldun proportziorik handiena duen adin-tartea (% 25,7) baina 16-24 adin-taldekoen euskaldun proportzioarekiko aldea % 4,2koa da (% 10ekoa zen 2016an).

## **3) Familia bidezko transmisioaren sendotzea konfirmatzen da**

- Bi burasoak euskaldunak direnean, % 79,2k euskara transmititzen du. % 75,6 ziren 2016ean eta % 80,2 2011an.
- 3 eta 15 urte arteko haurrak dituzten bikote euskaldunetan, euskararen transmisioa % 94koa da.
- Linguistikoki mixtoak diren bikoteetan, euskararen transmisioa apalagoa da baina gora joan da azken inkestari konparatuz: bikoteen % 26ak euskara transmititzen du.

#### **4) Euskararen erabilera jautsi da baina 16-24 urtekoen adin-taldean emendatzen ari da**

- Oro har, euskararen usaiazko erabilpena (euskara frantsesa baino gehiago edo hein berean erabiltzen delarik) gutitzen ari da duela 10 urte egindako inkestaren emaitzekin konparatuz. Aldiz, noizbehinkako erabilera (euskara frantsesa baino gutiago edo askoz gutiago erabiltzen delarik) pixka bat emendatu da (% 9,3 2011n, % 10,2 2016ean eta % 11 2021ean) ia adin-talde guztietan.
- Euskararen erabilpen tasarik handiena duen adin-taldea 65 urte eta gehiagokoena da beti. 16-24 urteko adin-taldekoak dira 10 urtetan, usaiazko erabileraren indarberritze txiki bat duten adin-kategoria bakarra.

#### **5) Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak**

- 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 36,3 euskararen erabilpenaren sustatzearen alde dira. Ez alde ez aurka direnak asko dira eta proportzio handiagoan 2016 urteari konparatuz: % 49,2, 5 urte lehenago % 47,5 zirelarik. Aurka direnak gutitu dira: % 14,5 2021ean % 17,1 zirelarik duela 5 urte.
- Lotura egin daiteke euskarari buruzko jarreraren eta hizkuntza-gaitasunaren artean: euskaldunen % 70, elebidun hartzaileen % 48,4a eta erdaldunen % 25a euskararen erabilpenaren sustatzearen alde dira.
- Ipar Euskal Herriko biztanleen % 60 inguruk euskararekiko interes handia edo biziki handia du. Kasik % 50ek diote gutxienez euskara sustatzeko ekitaldi bat ezagutzen dutela.

Ipar Euskal Herriko pertsonen % 16,5ek nahi luke seme-alabak murgiltze eredian eskolatzea eta % 37,5 eredu elebidunean. Orotara, % 54ak euskarazko irakaskuntzaren alde egiten du (oroigarri gisa, 2022/2023an eskolatutako haurren % 29a eredu elebidunean edo murgiltzean zegoen, % 21 elebidunean eta % 8 murgiltzean).

#### **Informazio gehigarriak**

Inkestaren aurkezpenari lotutako dokumentu desberdinak [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr) webgunean aurki daitezke.

Inkestari buruzko informazio gehigarriak eskuratzeko : [a.anin@mintzaira.fr](mailto:a.anin@mintzaira.fr)